



BIRIKLETA

KOSTU EGITURA

KOSTU FINKOAK		PREZIOA
DOMEINUA ETA HOSTING ZERBITZUA		95 €
KOSTU ALDAKORRAK		PREZIOA
ELEKTRIZITATEA		100€
ZABORRA + URA (3 hilean behin)		40€
HASIERAKO INBERTSIOA		PREZIOA
BULEGORAKO ALTZARIAK	MAHAIA	30€
	AULKIAK	4 x 10 = 40€
	APALTEGIAK	4 x 8 = 32€
	ZABOR ONTZIA	1,5€
TELEFONOA (TELEFONOA + TELEFONO ZENBAKIA + WIFIA)		40€/hilabetean (40x12= 480€ urte bat)
KOSTUAK GUZTIRA		818,5€

Gure proiektuaren helburua ez da elkarteko kideentzat irabazi ekonomikoa lortzea. Hori dela eta, gure kostuak ahalik eta gehien minimizatzen saiatu gara. BIRIKLETA elkarteak izango dituen kostuak bi multzotan banatzen dira:

Alde batetik, elkarteak izango dituen kostu finkoak. Esate baterako, urtean behin ordaindu beharreko domeinua eta hosting zerbitzuaren kostuak (95€). Zumaiako Udaren laguntzarekin lortu dugu lokala, gure proiektua aurrera eramateko lan gune bat eskaini baitigu. Ondorioz, ez dugu lokalarekin lotutako gasturik ordaindu beharko.

Bestalde, kostu aldakorrak ere izango ditugu. Gastu hauek hiru hilean behin ordaindu beharreko ura eta zaborra dira eta bestalde, hilero, elektrizitatearen kostuak ordaindu beharko ditugu.



BIRIKLETA

Lan egiteko materialari dagokionez, ez dugu inolako gasturik izango. Taldeko kideak teknologiarekin lan egitera ohituta gaudenez, aurrez etxean ditugun ordenagailuak erabiliko ditugu.

KOSTU BEREZIAK - LASTERKETA

Ekainean BIRIKLETA EGUNA inizatiba jarriko dugu martxan. Gipuzkoan zehar antolatuko dugun txirrindularitza lasterketa solidarioa ain zuzen ere. Beraz, kostu orokorrez gain honako hauek izango dira, zehaztu dugun hilabetean soilik ordaindu behar izango ditugun kostuak:

KOSTUAK	DIRU KOPURUA
DORTSALA (zenbakia+kamiseta)	$(0.18\text{€} \times 1.000) \times (2.7\text{€} \times 1.000) = 2.880\text{€}$
AQUARIUS BOTILAK	*
JANARIA	*
PRODUKTUAK	*

Aquarius, Eroski eta Forum Sport enpresek beraien marken publizitatearen truke eskaintzak egingo dizkigute. Eroski supermerkatuak hainbat elikagai eta Aquarius enpresak freskagarriak eskainiko dizkie lasterketako partehartzaileei energia berreskura dezaten. Bestalde, Forum Sportek lasterketaren amaieran egingo dugun zozketa osatzeko beraien produktu ospetsuenak eskeiniko dizkigu. Horiek horrela, jarduera hauek ez dute inolako kosturik ekarriko.